

## IRAKASKUNTZA GIDA

### IRAKASGAIA

Kontabilitatearen eta Auditoriaren Lege Markoa

### HELBURUAK

Irakasgai honen helburua, kontuen auditoria ikuspegi juridikotik azaltzea da. Gaur egun, tamaina bat gainditzen duten eta jarduera konkretu batzuk dituzten sozietate eta entitateek beren urteko kontuak ikuskatuko dituen auditore baten izendapena egiteko obligazioa dute. Kurtso honetan, auditoreek, beren lana egiten dutenean, kontuan izan behar dituzten arauak azaltzen dira. Auditoriari buruzko Legea, Erregelamendua, Kapitaleko Sozietateei buruzko legean auditoriari buruz dituen arauak, Merkataritzako Kodea eta Nazioarteko Auditoria Arau batzuk, bereziki, auditoria txostenari buruzkoak, aztertzen dira.

### HABILEZIAK

- Auditoreen lan mota desberdinak ezagutu eta, bereziki, urteko kontuen auditoria bat zer den
- Kontuen auditoria egitera behartuta dauden enpresa eta entitateak identifikatu, zergatik egiten den auditoria eta zergatik den hain garrantzitsua auditorearen lana ezagutzera ematea
- Auditorearen txostenaren egitura, iritzi motak eta auditoreak kontuan hartzen dituen zirkunstantziak iritzi mota bat edo beste bat emateko orduan ezagutu
- Nola ezagutu auditore batek urteko kontuekiko duen iritzia.
- Auditorea izendatzen denetik, urteko kontuak Merkataritzako Erregistroan inskribatzen diren arteko prozesu osoa ezagutu
- Auditorearen independentziaren inguruko gai guztiak, erantzukizun zibila eta administratiboa ezagutu
- Kontabilitate eta Kontuen ikuskaritza Institutua eta Auditoreen korporazioen funtzioak ezagutu

Kurtsoreen helburua, orokorrean, ikasleei, kontuen auditoriaren legezko erregulazioa erakustea da.

## AURREBALDINTZAK

Ez dago.

## AZALPENA

Urteko kontuek sozietatearen egoera ekonomikoa eta finantzarioa adierazten dute. Hala ere, kasu askotan, beharrezkoa da kontu horiek fidagarriak diren ala ez jakitea. Asko dira enpresa baten finantza egoeran interesatuta dauden pertsonak eta, ondorioz, asko dira babestu beharreko interesak. Interes hauek babesteko eta enpresaren informazio ekonomiko-kontablearen gardentasuna eta fidagarritasuna kontrolatzeko asmoz, legeak enpresarien urteko kontuen auditoria erregulatzen du.

Urteko kontuen auditoria auditore izeneko profesional independente batek egingo duen dokumentu kontableen errebisioa da. Lan horren ondorioz informazio ekonomikoaren fidagarritasunari buruz txosten bat egingo du auditoreak. Txosten hori, edozeinek enpresarekiko erabakiak hartzeko erabili dezakeen instrumentu bat da. Irakasgai honetan, kontuen auditoriaren Legea, Erregelamendua eta auditoria erregulatzen dituzten beste arau batzuk aztertuko ditugu eta, bereziki, auditore izateko eta auditoria sozietate bat eratzeko baldintzak, auditoreak bere lanetan izan behar duen independentzia, egiten duen auditoria txostena, sekretu obligazioa, erantzukizun zibila eta administratiboa, auditorea izendatzeko organoak, etb. Azalpen teorikoaz gain kasu praktiko bat planteatuko da.

## GAIA- ZERRENDA

### LEHENENGO ATALA: KONTUEN AUDITORIARI BURUZKO LEGEA

#### 1. IKASGAIA.- SARRERA

##### 1.1. Helburuak

##### 1.2. Kontabilitatearen funtzioa

##### 1.3. Enpresariak kontabilitatea eramateko duen obligazioaren oinarriak

##### 1.4. Merkataritzako Kodea eta Kontabilitatea

##### 1.5. Kontabilitate liburuak

##### 1.6. Urteko kontuak

##### 1.7. Glosategia

#### 2. IKASGAIA.- SARRERA

##### 2.1.- Helburuak

##### 2.2. Kontuen Auditoriaren hastapenak.

##### 2.3. Kontuen auditoriari buruzko oinarritzko arauak.

##### 2.4. Kontuak ikuskatzera behartutako enpresak.

## 2.5. Glosategia

### 3. IKASGAIA.- KONTUEN AUDITORIAREN KONTZEPTUA ETA OINARRIAK.

#### 3.1. Helburuak

3.2. Aurretiko gogarteak.

3.3. Kontuen auditoriaren kontzeptua orokorrean.

3.4. Urteko kontuen auditoriaren kontzeptua.

3.5. Auditore baten nahitaezko parte hartzea urteko kontuen auditorian eta beste lan batzuetan.

3.6. Kontu bateratuen auditoria.

3.7. Glosategia

### 4. IKASGAIA.- AUDITOREAREN TXOSTENA

#### 4.1. Helburuak

4.2. Urteko kontuen auditoria txostena.

4.3. Urteko kontuei buruzko iritzi teknikoa.

4.4. Urteko kontuei buruzko txostenaren aurkezpena, gordailua eta argitalpena.

4.5. Txosten bakoitzagatik Tasa.

4.6. Glosategia

### 5. IKASGAIA.- KONTUEN AUDITOREEN ERREGISTRO OFIZIALA ETA AUDITORE IZATEKO BALDINTZAK.

#### 5.1. Helburuak

5.2. Kontuen auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatzea, auditore izateko ezinbesteko baldintza.

5.3. Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialaren atalak eta inskripzioak.

5.4. Auditore bezala gaitua izateko baldintzak. Auditore izateko jarraitu beharreko pausoak.

5.5. Glosategia

### 6. IKASGAIA.- AUDITOREAREN INDEPENDENTZIA ETA BATERAEZINTASUNAK.

#### 6.1. Helburuak

6.2. Independentziaren printzipio orokorra.

6.3. Bateriaezintasunak. Suposamendu nagusien azterketa.

6.4. Auditoreen kontratazio epeak.

6.5. Glosategia

### 7. IKASGAIA.- KONTUEN AUDITORIA SOZIETATEAK.

#### 7.1. Helburuak

7.2. Kontuen auditoria sozietateei buruzko orientabideak.

7.3. Auditoria Sozietateak eratzeko baldintzak.

7.4. Erregimen juridikoa.

7.5. Glosategia

8. IKASGAIA.- ERANTZUKIZUN ZIBILA

8.1. Helburuak

8.2. Auditoreen eta Auditoria Sozietateen erantzukizun zibilari buruzko aurretiazko hausnarketak.

8.3.- Erantzukizunaren elementuak.

8.4. Erantzukizunaren ezaugarriak.

8.5. Glosategia

9. IKASGAIA.- AUDITOREAREN OBLIGAZIO BATZU.

9.1. Helburuak

9.2. Informazioa eskatzeko auditoreak duen eskubide-obligazioa eta ikuskatutako enpresa edo erakundeek informazioa emateko duten obligazioa.

9.3. Fidantza jartzeko obligazioa.

9.4. Sekretua gordetzeko obligazioa.

9.5. Zaintza obligazioa eta sekretu obligazioari mugak.

9.6. Glosategia

10. IKASGAIA.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK.

10.1. Helburuak

10.2. Aurretiazko hausnarketak.

10.3. Arau-haustekak.

10.4. Zehapenak.

10.5. Glosategia

11. IKASGAIA.- KONTABILITATE ETA KONTUEN AUDITORIA INSTITUTUA ETA AUDITOREEN ERAKUNDE PROFESIONALAK.

11.1. Helburuak

11.2. Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutua.

11.3. Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren Tasa.

11.4. Korporazioak.

11.5. Glosategia

BIGARREN ATALA: KONTUEN AUDITORIAREN ZENBAIT ALDERDI ERREGULATZEN DITUZTEN BESTE LEGE BATZU

12. IKASGAIA.- KAPITALEKO SOZIJETATEEI BURUZKO LEGEA.

12.1. Helburuak

12.2. Urteko kontuak eta gestio txostena auditore batek berrikusteko obligazioa. Arau orokorra eta salbuespenak.

12.3. Auditoreak izendatzeko legeko suposamendu desberdinak.

## 13. IKASGAIA.- KAPITALEKO SOZIETATEEI BURUZKO LEGEA (JARRAIPENA).

## 13.1. Helburuak

13.2. Kapitaleko Sozietateei buruzko Legean aurreikusitako auditoreen beste lan batzuk.

## 13.3. Glosategia

## 14. IKASGAIA.- KONTUEN AUDITORIA ERREGULATZEN DUTEN BESTE LEGE BATZU.

## 14.1. Helburuak

14.2. Merkataritzako Kodea.

14.3. Baloreen Merkatuari buruzko Legea.

14.4. Sozietate Kooperatiboei buruzko Legea.

## 14.5. Glosategia

HIRUGARREN ATALA: ERREGIMEN PROFESIONALA

## 15. IKASGAIA.- AUDITORIAKO ARAU TEKNIKOAK.

## 15.1. Helburuak

15.2. Auditoriako arau teknikoaren kontzeptua eta izaera juridikoa.

15.3. Legezko oinarriak.

15.4. Arau teknikoaren eraketa.

METODOLOGIA
-------------

Kurtso honek zati teorikoa, praktikoa eta ordenagailuarekin lan egiteko zatia ditu.

Zati teorikoak hamabost ikasgai ditu, bakoitzean glosategi bat datorrelarik edukia hobeto ulertzeko.

Kasu praktikoa ebazteko, material teorikoa eta auditoriari buruzko arauak erabili behar dira.

Kasu praktikoaren bitartez, teoriaren atal asko aztertzen dira.

Ordenagailuaren erabilpenari dagokionez, gomendatutako web orriak erabili beharko dira, beraietan dagoen informazioa aztertzeko.

KRONOGRAMA
------------

Materiala irakurri, legearen erabilpenarekin eta ICAC eta auditoreen web orrien erabilpenarekin osatuz	35 ordu
Kasu praktikoa ebatzi	15 ordu